

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa (2016-2019)

Partaidetza Prozesua

Bilera-mota	Lurralde-bilera
Eguna	2016-10-24
Ordua	17:00-19:00
Lekua	Iruñea, NAPI egoitzan

Bertaratutakoak	
Uxua Huizi Rayo (Lekunberriko zinegotzia)	Olatz Zabaleta Telleria (Aranguren Ibarreko euskara teknikaria)
Pilar Vicente Imaz (San Fermin ikastola)	Marisa Iraola Navarro (Burlatako euskara teknikaria)
Inma Errea Cleix (Iruñeko Udaleko itzultzailea)	Ana Errondosoro Otaegi (Barañaingo euskara teknikaria)
Imanol Haranburu Karrera (Iruñeko Hizkuntza Eskola)	Mikel Jauregi Ganuza (LAB sindikatua)
Julen Aranguena Plaza (Lizoainibar-Arriasgoitiko Udala)	Lurdes Larunbe Arretxe (herritarra)
Ana I. Cancel Armendariz (Auzalar ikastetxe publikoa)	A.Chivite Martinez (herritarra)
Ana Mindegia Ilarregi (Uharteko euskara teknikaria)	Koldo Azkona Zaragueta (Eguesibarko euskara teknikaria)
Joana Eguillor Francos (Burlatako zinegotzia)	Susana Heras (herritarra)
Julian Ruiz Jimenez (Jesusen Bihotza ikastetxea)	Alfonso Alzugaray (herritarra)
Maite Ruiz de Erenchun Lizarraga (herritarra)	Maider Beloki (Iruñeko zinegotzia)

Euskarabidetik: Mikel Arregi eta Kontxi Del Rio,

Elhuyarretik: Idoia Aldekoa

Gai zerrenda

- Ongietorria
- Elkar ezagutzea
- Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztea
- Lanketa: talde-lana
- Balorazioa eta agurra

Bileran egindakoa

Iruñeko Udaleko zinegotzia den Maider Belokik ongietorria egin du eta Euskarabideko Zuzendari nagusiak, Mikel Arregik, saioaren helburua eta egingo duguna azaldu du. Elkar ezagutzeko, izenerronda egin dugu eta Plan Estrategikoaren prozesuaren nondik norakoak azaldu ditu eta Idoia Aldekoari, Elhuyarreko teknikariari, eman dio hitza planaren helburuak aurkezteko. Aurkezpena egin bitartean, parte-hartzaileek lanketa-fitxa izan dute eskuartean oharrak jasotzeko. Lanketa-fitxak honakoa jasotzen zuen: *Erantsiko nuke.../ Zalantza eragiten dit.*

Aurkezpenaren ondoren, talde txikiak egin ditugu eta galdera hauen inguruan jardun dugu lanean:

- Zerbait erantsiko zenuke? Zerbait faltan bota duzue?
- Zerbaitek zalantza eragin dizue?

Ondoren, talde handian konpartitu dugu talde txikietan hausnartutakoa.

Saioa bukatzeko, balorazioa egin dugu eta hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu ditugu.



Bileran jasotako iritzia eta ekarpenak

Erantsitakoak edo azpimarratzekoak diren alderdiak:

- NUPen soziolinguistika ikasketak egiteko aukera egotea.
- Etiketa eta irudi korporatiboari dagozkion alderdiak euskaraz bultzatzea, publizitate-enpresek publizitatea euskaraz egitea.
- C2 titulazioa eskaini behar da
- Irakasleen trebakuntzan sakontzea. C1 maila, irakasle arituko direnentzat 'masterra' edo ikastaroa antolatzea.
- Hiztun berriak: D ereduko matrikulazioak areagotu nahi dira baina egun euskararen aldeko jarrera dutenek ere ez dituzte beraien seme-alabak D ereduan matrikulatzen. Horiek euskarara eta D eredura hurbiltzeko lan egin behar da.
- D ereduko matrikulazio-kanpainarako komunikazio estrategia berria, egokia eta komuna behar dugu. Ezin dira matrikulazio-kanpainak zuzendarien esku soilik geratu.
- Hiztun berriak: Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean eskaintzak eskuzabala izan behar du nahiz eta eskaria hasiera batean oso handia ez izan. Diskriminazio positiboa ere erabili daiteke.
- Euskararen argumentario berria behar da, orain arteko mezu eta jarrera defentsiboak gainditzeko.
- Garrantzitsua da adibide arrakastatsuak gizarteratzea, eta gazteen eremura ekartzea, gazte euskaldun arrakastatsuak eredu izatea.
- Euskararen prestigioa igotzeko motibazio pragmatikoetan eragin behar da, lanerako balio erantsian sakondu. Euskal profesionalak aurrera atera.
- Tresna teknologia berriak baliatzea eta eskaintzea. Euskara abantaila gisa aurkeztea, eta ez eragozpen gisa.
- Helduen euskalduntzeak tresnak behar ditu.
- Euskaldun ez diren umeentzako jarduerak euskaraz umetatik jasotzea garrantzitsua da.
- Etorkinekiko hurbiltasuna eta euskara beraiena hurbiltzea, Gizarte Zerbitzuetatik landu.
- Migrazioaren kontzeptua ez da inon aipatzen.
- Eremu ez euskaldunek laguntza gehiago behar dute. Euskara zabaltzeko Euskarabideak baliabideak eskaini behar ditu, adibidez, zentroetako matrikulazio-prozesuetan, informazioa zabaltzerakoan...
- Lehentasunak finkatu behar dira, plangintza gehiago zehaztu beharra dago. Lehentasun gehien duten ardatzak hauek dira: Prestigioa eta Erakargarritasuna; eta Hiztun berriena.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Zalantza eragiten duten alderdiak:

- Kuantifikatu da lanaren ezarpenak duen kostua?
- Nola finantzatuko da? Nondik aterako da hainbeste diru hau dena aurrera eramateko?
- 'Ikastegi publikoak' zeintzuk dira?
- Herri ekimeneko euskaltegiekin elkarlana? Nola?
- Legearen gainean ez da asko aipatzen. Nola eragin? Araudia egokituko dela jartzen du, baina zehaztasuna falta da.
- NUPen eskaintzan euskara areagotzea. Nola? Zerbitzu publikoen euskalduntzean eta euskarari prestigioa emateko eragile garrantzitsua da, baina nola eragin?
- Lankidetza-markoak nolakoak? Hitzarmenak NUPekin??
- Zeharkakotasuna garrantzitsua da, baina arazoak sortzen dira: erresistentziak, euskaldunen auto-estimua baxua... Hor sortzen diren desorekei nola egingo diegu aurre?
- Eskolaz kanpoko jardueretan, begirale eta monitoreek hizkuntza dinamizazioaren ikastaroa jasotzea nork ordainduko luke?

Bileraren balorazioa

Bakoitzak hitz batez baloratu du saioa eta saioan landutakoa:

- Itxaropena
- Positiboa
- Aurrerapausoa
- Baliogarria
- Egingarria
- Argi berdea
- Argi izpia
- Zehaztasunaren hasiera
- Hasmenta
- Abiapuntua

Eta saioaren balorazioa orokorra egiteko, balorazio-orria bete dute. Hona emaitza:

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA (Iurralde-bilerak)

BALORAZIOA				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA		2	9	3
GAIK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT		2	8	4
BILERAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA		3	8	3
BILERA AURRETIK JASOTAKO INFORMAZIO NAHIKOA IZAN DA		5	7	1
GIROA ATSEGINA IZAN DA			7	7
PLAN ESTRATEGIKORAKO EKARPEN INTERESGARRIAK EGIN DIRA			9	5
GAUZA BERRIAK IKASI DITUT		6	5	3
BILERAN PARTE-HARTZEAK AURRERA BEGIRAKO URRATSETARAKO MOTIBATU EGIN NAU		2	8	4
HARREMAN ETA SARE BERRIAK ERAIKI DIRA		9	4	1
BILERAN PARTE HARTZEAK ASETU NAU		3	8	3

EGIN NAHI DITUZUN OHARRA

- Ez dut uste erdaraz egiteko apuntatu direnak eroso sentitu direnik. Batzuk joan egin dira...
- Plangintzak duen hedapenerako azalpena laburregi edo orokorregeratu da
- Leku egokiagoa behar zen. Talde dinamika egokiagoak, talde bakoitzean Euskarabideko teknikari batek egon behar zuen ekarpenak lehenbiziko eskutik jasotzeko. Iruñeko zinegotziak bilera guztian egon behar luke.